

Prentsa-oharra

Elkarlaneko robotika aeronautikako ikuskapen- lanetarako

- ▶▶ *IK4-TEKNIKER Europako CRO-INSPECT proiektuaren burua da. Proiektuaren helburua hegazkinetako aleroien ikuskapena hobetzea da, elkarlaneko robotika eta ultrasoinuen bidezko teknikak uztartuz*
- ▶▶ *2019an bukatuko den proiektuak 350.000 euroko finantzaketa jaso du Europar Batasunaren eskutik*
- ▶▶ *SAABek erabilera kasu gisa bideratzen ditu aleroia ikuskatzeko proiektuaren beharrak*

(Eibar, 2017eko martxoaren 23a).- Hegazkin arinagoak, gutxiago kutsatzen dutenak eta energia-eraginkortasun handiagoa dutenak fabrikatzeko xedearekin industria aeronautikoan material konposatuak erabiltzen hastean, materialak edo piezak aztertzeko teknika sofistikuak erabili behar dira azterketa ez-suntsitzaileekin akatsak hautemateko.

Prozesu horiek hobetzeko helburuarekin, [IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoa Europako [CRO-INSPECT](#) proiektuaren burua da. Proiektuaren helburua hegazkinetako aleroien ikuskapena hobetzea da, elkarlaneko robotika eta ultrasoinuen bidezko teknika aurreratuak erabiliz, uhin gidatuen bidez. Proiektua [SAABek](#) eskatutako betekizunetan ardaztuta dago. Aeronautikako osagaiak fabrikatzen dituen enpresa horrek egun osagaiei egiten zaizkien azterketak optimizatzeko beharra dagoela ikusi du.

Hegazkin iraunkorragoen aldeko apustua egiteko beharrak, ingurumenean ondorio gutxiago dutenak, material konposatuak erabiltzea eskatzen du, eta horiek, aldi berean, azterketak beste era batera egitea eskatzen dute. Gaur egun, kalitate-maila oso altua eskatzen da aeronautikan. Hori dela eta, fabrikatzen diren piezen %100 ikuskatu behar da, eta horrek eragin zuzena du fidagarritasun-mailan, eraginkortasunean eta kostuan.

2016ko irailean abiarazitako eta 2019ko abuztuan bukatuko den proiektu honek lan-giro hibridoa sortzea proposatzen du, non pertsonak eta robotak elkarlanean ari daitezkeen ikuskapen-lanak egiteko. Posiblea izan dadin, ultrasoinuen bidezko teknika aurreratuak erabiltzen dira, uhin gidatuen bidez. Uhin gidatuei esker, ikusteko eta atzitzeko zailak diren osagai zatietan dauden akatsak identifika daitezke.

Proiektuaren buru den IK4-TEKNIKERez gain, proiektua gauzatzeko partzuergo arduraduneko kideak dira [IK4-LORTEK](#) eta [TECNATOM](#). Azken enpresa hori osagaien egituraren osotasuna ikuskatzeko zerbitzuetan espezializatuta dago.

Proiektuaren helburu nagusia zera da: robotika, segurtasuna eta ikuskapen-lanak kontrolatzeko osagai teknologikoak garatzea. Ikuskapenak elkarlanean egiteko modu segurua izango da proiektuaren azken emaitza, pertsonen eta roboten lana uztartzen dituen, aleroia modu fidagarri eta eraginkorrean ikuskatze aldera.

Era horretan, osagai handien ikuskapenen kalitatea nabarmen hobetuko da, eta horri esker ikuskapenak bizkorrago egingo dira, modu fidagarrian eta inbertsio eraginkorrakoak lortuz.

Egiaztapen-zikloak %40an murriztea espero da. Horretarako, proiektuan parte hartzen duten erakundeek 350.000 euroko finantzaketa jaso dute Europar Batasunaren eskutik.

IK4-TEKNIKERen ekarpena

IK4-TEKNIKER arduratuko da elkarlaneko robotikarekin lotura duten jarduerak kudeatzeaz, pertsonen eta roboten arteko elkarreragina ahalbidetzen duten lan-giro seguruak sortzera zuzenduak.

Euskadiko zentroa erreferentea da robot autonomo adimendunen belaunaldi berrien ikerketan eta diseinuan, giro industrialetara fidagarritasuna, bizkortasuna eta malgutasuna ekar dezaketenak.

Erakundeak esperientzia zabala du Europa mailako proiektuetan, adibidez, honako hauetan parte hartu du: [X-ACT](#), [SME-Robotics](#), [ROBOPARTNER](#), [EUROC Challenges](#) eta [MAINBOT](#). Horiei guztiei esker, proiektuak elkarlaneko robotikarekin lotuta dituen erronkei aurre egiteko gai izan da.

Elkarlaneko robotikaren abantailak

CRO-INSPECT proiektuan elkarlanean aritzeko aplikatuko den teknologia malgutasuna areagotzen du. Alde batetik, robota modu autonomoan jardungo da, eta horri esker fidagarritasuna hobetu eta ikuskapen-zikloak luzatuko dira.

Eta bestetik, soluzio horrek aukera emango dio teknikariari lan konplexuak modu eraginkorragoan egiteko, robotaz lagunduta.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel.: 637 273 728